

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y  
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

**DESARROLLO RURAL Y MEDIO  
AMBIENTE**ASUNTOS SOCIALES FAMILIA  
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y  
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL  
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## la milioi bat euroko gastua onetsi da nekazari gazteak ezartzeko

*Kopuru horren bidez, eskaera berriei erantzun nahi zaie eta gastua 2011ko eta 2013ko ekitaldietan gauzatuko da*

Lunes, 11 de abril de 2011

Nafarroako Gobernuak, gaurko saioan, 944.900 euroko gastua baimendu du 40 urtetik beherako nekazari gazteen ezarpen berriak diruz laguntzeko. Gastua 2011 eta 2013 urteetan gauzatuko da, 489.879 eta 455.020 euro hurrenez hurren. Gastua izapidetzeko dauden laguntza-eskaerei erreparatuz aurreikusi diren beharrei erantzuteko baimendu da.

Nekazari gazteak ezartzeko laguntzen programa Nafarroako Landa Garapeneko Planaren (2007-2013) barruan indarrean dago eta 1. ardatzari dagokio, nekazaritza-sektorearen lehiakortasuna handitzea jomuga duena. Laguntza ekonomiko horiek Nafarroako Gobernuak (%84) eta LGENF Europako funtsek (%16) finantzatzen dituzte.

Nekazari gazteentzako laguntzak 40 urtetik beherako pertsoneri bideratuta daude, nekazaritza-ustiategi batean titular moduan edo titularkide moduan ezarri nahi badute. Bi laguntza-modalitate ezarri dira: nekazaritza-ustiategi batean nekazari nagusi moduan ezartzeko 40.000 euroko prima bakarra ematen da gehienez edo 40.000 €-ko interes-hobaria gehienez, edo bien arteko konbinazioa, gehienez 70.000 euro emanda. Instalazioko titular nagusia ez bada, 24.000 euroko prima bakarra ematen da. Laguntza diruz laguntzeko moduko inbertsioaren %40ra artekoa izan daiteke (%50ekoa, ustiategia beharrezana duen inguru batean badago).



Nekazaria baratzean.